



Aspartamoa: E 951 edulkoratzailearen azken ebaluazioa -EFSA 2013

Aspartamoa (elikagaien etiketetan E 951 (<http://wikia.elika.eus/index.php/Aspartamoa>)) edulkoratzailearen kaltegabetasuna ebaluatzen hainbat urte eman ondoren, EFSAk honako ondorio hauek atera ditu:

- **EZ da kartzinogenoa:** animalietan zein gizakietan egindako azterlanen probak zehatz berrikusi ostean, adituek baztertu egin dute kalte genetikoa edo minbizia eragiteko arriskua.
- Aspartamoa kontsumitzeak **EZ DU kalterik eragiten burmuinean edo nerbio-sisteman, eta ez du eragiten umeen eta helduen jarrera edo funtzio kognitiboan.**
- **Ez da arriskutsua haurdunentzat:** Aspartamotik eratorritako fenilalaninaren aurreko esposizioa dela eta, ez dago inolako arriskurik garatzen ari den fetuarentzat, feniltzetonuria (<http://wikia.elika.eus/index.php/Feniltzetonuria>) pairatzen duten emakumeetan izan ezik.

Gaur egungo Eguneko Ingesta Onargarria (ADI) (<http://wikia.elika.eus/index.php/ADI>) 40 mg-koa da gorputz pisuko kiloko eta eguneko, eta EFSAk ondorioztatu du ADI (<http://wikia.elika.eus/index.php/ADI>) hori segurua dela herritarrentzat oro har, feniltzetonuria (PKU) (<http://wikia.elika.eus/index.php/Feniltzetonuria>) pairatzen duten pertsonetan izan ezik. Kasu horietan ezin da aplikatu ADIa; izan ere, pertsona horiek dieta zorrotza behar dute, fenilalanina gutxiko dieta. Fenilalanina aminoazido bat da, aspartamoa degradatzean sortzen dena.

Hori guztia aintzat hartuta, EFSAK honako hau baieztatzen du:

Aspartamoa eta bere degradazio-produktuak seguruak dira giza kontsumorako gaur egungo esposizio-mailetan.

Aspartamo edulkoratzailearen azken ebaluazioa - EFSA (<http://www.efsa.europa.eu/en/press/news/131210.htm>)

